



Mahai - ingurua

Hezkuntza

(Round table: The education)

Eduardo Aldasoro, Nafarroako Gobernua; Iñaki Azkona, Nafarroako Gobernua; Rikardo Ederra, Sortzen-Ikasbatuaz; José Luis Mendoza, Euskara Kultur Elkargoa; José M^a Rodríguez Ochoa, Nafarroako Gobernua; Pakita Zabaleta, Nafarroako Unibertsitate Publikoa

BIBLID [1137-1951 (2003), 11; 53-58]

Euskarak Nafarroan jarraitasunik izango baldin badu, etorkizunean ere euskaraz egingo delako izango da. Eta, hain zuzen ere, belaunaldi berriak izango dira Nafarroako euskararen geroa beren esku izango dutenak. Horregatik, euskara hezkuntzaren esparruan ere erabiltzeak garrantzi itzela du. Ikus dezagun zer xedatzen duen Legeak honen inguruan, zertan diren ereduak, eta zer irizten duten hezkuntzaren maila ezberdinetan diharduten irakasleek.

Giltza hitzak: Euskara. Nafarroa. Irakaskuntza.

Zas nuevas generaciones representan la garantía de futura existencia para una lengua, puesto que la supervivencia del euskera dependerá en buena parte de que lo sigan utilizando. Es vital que el euskera esté presente en las distintas fases de la educación. Conozcamos lo establecido en las disposiciones legales, cómo se configuran los modelos de enseñanza, y la visión del profesorado.

Palabras clave: Euskera. Navarra. Enseñanza.

Zes nouvelles générations représentent la garantie d'une existence future pour une langue, puisque la survie de l'euskera dépendra en bonne partie de ce que l'on continue à l'utiliser. Il est vital que l'euskera soit présent dans les différentes phases de l'éducation. Connaissions ce qui est établi dans les dispositions légales, comment sont formés les modèles d'enseignement, et la vision du professorat.

Mots clés: Langue basque. Navarre. Enseignement.

Rikardo Ederra: Nik esan behar dudana Eduardok esan duenarekin osatzen da. Hasteko, esan behar dut *Sortzen-Ikasbatuaz*-en izenean nagoela ni hemen. *Sortzen-Ikasbatuaz*-en lan ardatz nagusia da gizartearen bultzada lortzea euskalduntzeko prozesuan, euskarazko irakaskuntza bermatzeko edo laguntzeko.

Irakaskuntza-sareen egoera oso desberdina da Nafarroan. Paradigmatikoa da hemen gertatzen dena, beste tokietan gertatzen denarekin konparatuz. Hain zuzen ere, sare pribatutik kanpo egon delako euskara orain gutxira arte. Sare pribatuan orain ematen da nolabaiteko A ereduaren sarrera txiki bat, baina ez du garrantzi berezirik, eta oso zaila da esplikatzen ikastetxe profesionalek zergatik ez duten euskara Nafarroan behar den moduan aintzakotzat hartu.

Jakina da azken 10-15 urteotan ikastola batzuk desagertu egin direla, eta horrek nolabait negatiboki baldintzatu du euskal eskolaren garapena.



Andoni Esparza Leibar, Eduardo Aldasoro, Paula Kasares

Ikastola publikoaren egoera edo bilakaera estrategikoa izan da. Garai batean, gehienbat zonalde mistoan eta Iruñerrian, existitzen zen udal ikastola publikoa, eta horretara mugatzen zen irakaskuntza publikoaren errealitate bakarra euskararen ikuspegitik. *Sortzen*-en sorrerarekin, muga administratiboak gainditzeko apustua egin zen: euskal irakaskuntza publikoak mugak gainditu behar zituen, euskal irakaskuntza beste ikastetxe publiko nazionaletara ireki behar zen. Apustu horrek oso garapen handia ekarri du azken hamar urte hauetan, eta gaur egun Iruñerri osoan eta Iruñan bertan auzo gehienetan D eredu dago eskola publikoetan. Hain zuzen ere D eredu da eskola publikoa sustatzeko balio izan duen elementua.

Eremu mistoaren bilakaera Iruñerriak gidatu du, eta horri esker zabaldu da prozesua gainerako eremu mistora, Erronkaritik Lizarrara. Aipatzekoa da eremu ez-euskaldunean A ereduak izan duen garapena. Hori inportantea da, esan nahi duelako nafar gizarteak euskararen aldeko apustua egiten duela, ematen zaion aukera estuan bada ere. Eremu horretako eskola publiko gehienetan A eredu besterik ez zuten aukeran, eta hori hartu dute.

Orain dela bost bat urte sortu zen eztabaida famatu horretan, Parlamentuak horretaz erabaki behar zuenean, eremu ez-euskaldunetako eskola publikoetan D eredu zabaltzeko aukera egon zen, eta uste dut hor ez ginela ongi egon. Gaur egungo egoera hau gainditzeko modu bat izan zitekeen eta pasatzen utzi genuen, eta gaur egun horren ondorioak sufritzen ari gara.

Mailaz mailako gaur egungo euskal irakaskuntzaren onurak eta hutsuneak aipatu nahi nituzke. Hasteko, haur hezkuntzako 0-3 urte bitarteko lehenbiziko zikloaz hitz egin behar da. Maila hori, hezkuntzan baino gehiago, gizarte ongizatearen barruan dago, eta horrek esan nahi du ez zaiola eredurik ezartzen. Beraz, udal bakoitzak, bere kontzesioa egiten duenean, hizkuntza aldetik nahi dituen baldintzak ezarriko dizkie aurkezten diren kooperatibei edo enpresa pribatuei. Eta ez dutenez hezkuntzan aurreikusitako baldintzak izan behar, diskrezionalitatea nagusituko da: segun zer nolako udala den, halako haurtzaindegia eta halako ikuspegia euskararen eta hizkuntzen aldetik. Hori oso larria da. *Sortzen*-en haurtzaindegi hauek gure kargu hartzen hasi gara, nolabait euskara nahi dutenei euskara eskainiko zaiela bermatzeko. Betiere partxe bat izango da. Administrazioak bitartekoak ezarri beharko lituzke hau lortzeko.

3-6 urte bitarteko zikloan, oso larria da Administrazioa hiru urtetik aurrera erdara ematearen inguruan ezartzen ari den beharra -orain arte zazpi urtetatik aurrera ematen zen-. Hori oso kaltegarria izan daiteke, batez ere murgiltze ereduarentzat. Murgiltze eredu da haur erdaldunek euskaraz ikasteko erabiltzen den eredu. D eredu da, baina berezia. Bestalde, kaltegarria izango da baita ingelesa derrigorrean hiru urtetan ezartzea. Hori gaur egungo euskal irakaskuntzaren garapena baldintzatzen ari da.

Lehen hezkuntzan, laguntza falta izugarria da. Hori haur hezkuntzan ere gertatzen da, baina lehen hezkuntzan gehiago, hor ematen baita nolabaiteko behera alderako joera euskararen

erabilpenaren inguruan. 6-7 urtetan, lagunek gero eta garrantzi handiagoa hartzen dute. Ordura arte irakaslea da eredu bakarra, dena kopiazen diote, baina adin horretatik aurrera gero eta gutxiago. Lagunek gero eta garrantzi handiagoa dute, eta hor lagun gehienak erdaldun hiztunak izanik, erabilpenaren marra behera doa, nahiz eta euskararen ezagutza gora joan. Hemen euskararen erabilpenerako laguntzak bermatu beharko lirateke, eta ez dira inolaz ere bermatzen, edo oso saiheski.

Bigarren hezkuntzan, berriz, eraso nagusiena Kalitate Lege berria da. Lege honek planteatzen duen *Prueba General de Bachillerato* delako frogatik honek bermatzen du Batxilergoan eta DBHn emango den *curriculum* osoa, eta ikastetxe guztiek proba honetan jarriko dituzte beren begiak. Gero eta ikasle gehiagok aprobaten baldin badute, gero eta prestigio handiagoa izango du ikastetxe horrek. Beraz, frogatik honek *curriculum* estatal bakar bat bermatzen baldin badu, hortik kanpoko ezagupenak prestigiorik gabe geratuko dira. Honek ez du esan nahi frogatik hau ez denik egiten euskaraz, galegoz edo katalanez, baina bai esaten du hori gaintzeko jakin behar duten guztiak Estatu mailako *curriculum*-a izan behar duela, denentzako berdina, eta beraz gure izaera eta kultura propioak transmititzen dituzten ezagupenak kanpo gelditzen direla. Honek hemendik aurrera ondorio latzak izango ditu gure ikastetxeetan, eta orain arte ematen diren hainbat eta hainbat gai eranskin gisa geldituko dira nolabait (nafar historia, hemengo geografia, etab.).

Zikloz zikloko errebasoarekin amaitzeko, Lanbide Heziketa aipatu behar da. Desagertzen joan dira ematen ziren hizkuntza moduloak. Oso egoera larria da. Iruñerrian Donapean bakarrik ematen zen, eta hor arrisku larrian daude ematen ari diren modulu gutxi horiek. Beran eta Lekarotzen gelditzen dira hainbat modulu, eta horiek ere arriskuan daude ikasle faltagatik.

Bukatzeko, irakaskuntza ez-arautua dugu. Hau mundu bat da. Inork ez dio aurre egiten. Eta oso lotuta dago erabilpenarekin, normalean bizitzarako baliagarriak diren ikastaroak ematen direlako, eta hemen euskararen presentzia murrizta da.

Arlo eta etapa guztietan ematen den diskriminazioa kontuan hartuz, argi dago Nafar Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren politika frenatzea eta "ghettizatzea" dela, eta euskal irakaskuntza Nafarroan gero eta gehiago baztertzea.

Pakita Zabaleta: Lehendabizi, Euskarari buruzko Foru Legeak hezkuntzan izan duen eraginari buruzko gaiak sortu dizkidan ideiak botako ditut. Lege hau 1986an onartu aurretik zein egoera zegoen Nafarroan? Garai hartan hamaika urte bete ziren diktadura amaitu zenetik, euskararen galera etengabea zen, herri ekimenak hasiak ziren diktadura garaian, 68-69an sortu zen lehendabiziko ikastola Iruñan, ez zonalde euskaldunean, AEK ere Euskaltzaindiaren eskutik sortu zen, eskola publikoetako ikasle eta gurasoek ere mugimendu zabala zeukaten hasia, eta kontuan hartu behar da bi eredu tradizionalak ezarriak zeudela Nafarroako ikastoletan eta eskola publikoetan: D eta A ereduak.

1986an onartu zen Euskararen Foru Legea aztertzerakoan, lehenengo esango nuke gizatalde minoritarioek legeen behar handiagoa izaten dutela maioritarioek baino, eta gizatalde minoritario diodanean, botere gutxi duten gizataldeez ari naiz. Legearen alde edo ondorio onak aipatuko ditut lehenik: besteak beste, beharrezkoa zen euskal ereduak sare publikoan sartzeko legea. Ni ez nago ados zenbait aditurekin, esaten dutenean egoera alegalak posibilitatzen duela sare publikoan sartzeari. Euskararen berreskurapenak beharrezkoa du sare publikoa. Ikastolak ez dira nahikoak, eta Lege honek, txarra izan arren, hori posibilitatu zuen.

Ikusi da Legea onartu eta hurrengo urteetan euskararen galera eten egin zela Nafarroan, eta egin diren ikerketetan argi eta garbi islatu da euskararen berreskurapenean eskola izan dela faktorerik nagusiena. Gaur Nafarroan euskara bigarren hizkuntza dutenak ia erdia dira, eta ama hizkuntza euskara bakarra dutenak lehen zeudenen berdina samar dira. Eta hor tartean, %10 inguru, familia elebidunetakoak dira, edo aita edo ama erdalduna dutenak. Horrek esan nahi du euskararen berreskurapena haurrengandik hasi dela. 91ko mapa soziolinguistikokoan ikusten zen 50 urtetik gora oraindik galera zegoela, baina behetik gora berreskurapen garrantzitsua zetozeela. Berreskurapen horretan erabakigarria izan zen euskara sare publikoan sartzeari.

Legearen beste ondorio on bat da euskararen kontra sortu den eraso honi aurre egiteko tresna baliagarria izatea. Lehen Legearen balioaz konturatzen ez zen jende asko jabetu da hobe dela legeak izatea, txarrak izan arren, ez izatea baino.

Eta esango nuke Lege honen beste ondorio ona, ezartzen dituen ereduak direla, D

eta A nagusiki. Hemen B eredurik ez izatea onuragarria da, B ereduak ez duelako hizkuntza helburuak betetzeko balio. Argi eta garbi. Horregatik, oso kezkarria da orain Guillermo Herrero eta Eskola Kontseiluak behin eta berriro B ereduaren beharra errepikatzea. B ereduaren haren ez da kafesne eredu (erdia gaztelaniaz eta erdi euskaraz), EAEn den bezala.

Ondorio txarrak: besteak beste, hizkuntza eskubide desberdinak onartzen dizkiela nafarrei, eta hori behin eta berriro errepikatu behar da. Bestetik, ikusi behar da euskararen kontrako erasoak zein ezaugarri izan dituen hezkuntzan. Alde batetik, UPNk euskararen kontrako eraso 82an Gobernuan jarri zenetik hasi zuen, besteak beste HBren laguntzaz. Ordura arte, Ierro elebidunak jarri ziren (eskola eta institutu elebidunak), eta UPNk, beste askoren laguntzarekin, organizazio elebatar bihurtu ditu eskolak. Nik uste dut hori euskara ghettoetan sartzeko dela, euskal irakaskuntza ikastetxeak ghetto bihurtzea, eta horrek lagundu du giza aniztasunaren aldeko baloreak sendotu beharrean konfrontazio bidea errazten. Nik uste dut hori atzerapauso bat dela, eta horretan ez zen UPN bakarrik ibili.

Beste zer ezaugarri dauzka eraso honek hezkuntzan? UPN saiatu da guraso eta irakasleen artean giza gatazka sortzen, eta neurri batean lortu du. Horretarako besteak beste erabili duen tresna, euskara eta biolentzia parekatzea izan da.

Halere, UPNk Gobernu hartu ondoren, PSN pixka bat aldatu egin da. PSN Gobernuan egon zenean argi eta garbi zeukan irakaskuntza ez-unibertsitarioan behintzat Euskararen Legeak zioena bermatuko zuela, eta ikusi genuen proposamen teknikoak egiten zirela eta ez zutela inolako oztoporik izaten. Orain atzerapausoak ikusten ditut PSNren jarreran. Horretan indarkeriak eragin zabalak izan du, baina ez horrek bakarrik. Nik uste dut UPN eta PSN ikaratu egin zirela euskal irakaskuntzak Nafarroan zuen arrakasta ikusirik. Hori faktore esanguratsu bat izan da.

Zein eragin izan du Euskararen Foru Legeak irakaskuntza unibertsitarioan? Hemen gauzak bestelakoak izan dira. Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortu zenean, hasiera-hasieratik euskararen kontrako jarrera zeukaten PSNk eta UPNk. Eta, hala ere, ustekabeak, irakaskuntza unibertsitarioan ere eragina izango zuen lege bat onartu zuten, Euskararen Foru Legeak irakaskuntza unibertsitarioan maila ez-unibertsitarioan bezalaxe eragina duelako. Ez ziren horretaz jabetu, eta beraiek oso garbi izan

gabe, tresna baliagarri bat jarri ziguten euskaltzaleoi eskuetan. Orduan Gobernuan zegoen Urralburuk eta UPNk akordio bat zuten aniztasunaren kontrako unibertsitatea egiteko, ideologia espainolista garatuko zuen unibertsitate bat. Baina nafar unibertsitarien hizkuntza eskubideak legeztatuak daude, besteak beste, Euskararen Foru Legean. Ez hor bakarrik; baita ere Konstituzioan, Hizkuntza Minorizatuaren Eurokartan eta Unibertsitateko Estatutuaren, baina aipatzen ari garen Lege honen hiru artikulua dira zuzenean unibertsitarioren hizkuntza eskubideak garatzen dituztenak: 19, 24 eta 25. Lehengoak, 19.ak, hizkuntza eskubideak modu orokorrean onartzen ditu; 24.ak eremu euskalduneko unibertsitarienak, eta 25.ak eremu mistokoena. Nafar unibertsitario gehienek hizkuntza eskubideak bermaturik daude, eta eskubidea dute beren ikasketak unibertsitarioak nahi badute gaztelaniaz edo nahi badute euskaraz egiteko.

Oraindik indarrean dauden Unibertsitatearen Estatutuek ikasleen hizkuntza eskubideak garatzeko behar diren arauak onartu zituzten. Orain Estatutuak aldatzeaz gaude. Euskararen Foru Lege honek balio izan du Unibertsitatean euskara jasaten ari den erasoari aurre egiteko, eta izan dugun sostengu bakarra izan da, Estatutuak barne. Urte mordoan daramagu hizkuntzaren auziarekin bueltan, Pérez Pradosek agintea hartu zuenez geroztik. Bost batzorde desberdin osatu dira hizkuntza normalizazioa aurrera eramateko itxurak eginez, baina argi eta garbi ikusi da ez daudela horren alde. Hori oso ongi ikusten da UPNren zirriborroan, eta, are gehiago, PSNk aurkeztu duen zirriborroan. *Diario de Navarra*-k argitaratu berri duen bezala, esan behar da PSNk aurkeztu duen zirriborroa Gestorak (Pérez Calvo, Arbeloa, etab.) agintean zeudenean UPNrekin negoziatu zuten zirriborro berbera dela. PSNren zirriborroa ikusirik, argi eta garbi ikusten da ikasleen eskubideei dagokienez Euskararen Foru Legea indargabetzen dela. Lege berri hori onartuz gero, ikasleak hizkuntza eskubiderik gabe geldituko lirateke.

Eduardoren hitzaldiari erantzunez, esango nuke nik eskolan ez ditudala euskara formala, informala eta horrelako desberdintasunak egiten. Honi buruz ikerketa bat egin nuen 1996an, eta ikusi nuen eskolaurreko umeei elkarren artean euskara informala -takoak barne- erabiltzen dutela.

Hirugarren hizkuntza goiztiarrari dagokionez, aspaldian sartua dute ikastolek, onuragarria da, eta horren kontra egiten ari diren kanpainak kaltegarriak dira, eta ikerketek diotenen kontrakoa.

Nik argi eta garbi ikusten dut 0-3 urte bitartean eta lanbide heziketan ez dela euskal adarrik sendotu, horiek zabaldu zirenean UPN zegoelako agintean. Sare konfesionalari buruz, ez dut anormaltzat hartzen bide espainolista hartzea. Neurri handi batean Opusen esku dago, eta beste neurri handi batean Elizaren esku, eta normala iruditzen zait hauen eskolak euskaldunak ez izatea, beren ideologiaren arabera.

Rikardori esango nioke ikastola ttikien desagertzea ez dudala negatibotzat hartzen, eta desagertu zirela besteak beste ezin zutelako aurrera joan eta eskola publikoetan sartu zirelako, eskola publikoetan D eredia zabaltzen zihoalako.

Eskola eleanitzek baldintza psiko-pedagogiko onak bermatu behar dituzte. Kalitate probei nik ez nieke beldur berezirik izanen. Orain arte ikusi dugu unibertsitatean, adibidez sarrera probetan, D eredutik joaten diren ikasleek oso emaitza onak ateratzen dituztela, eta Opusetik eta beste ikastetxeetatik doazen ikasleekin konparatuz, beraz, ez dugu beldurrik izan behar.

José M^a Rodríguez Ochoa: Nire ustez, Nafarroako hezkuntzan badira puntu interesgarri batzuk. Esperientzia berri bat aipatu nahiko nuke: Los Arcosetik -nire herritik- Lizarrako ikastolara joaten diren umeak %20 baino gehiago dira. Los Arcos, maparen edo Legearen arabera, eremu ez-euskaldunean dago.

Errealitatearen arabera jokatzuz, 1986an eremu mistoa finkatzeko irizpideak eta oraingoak ez dira berdinak. Interesgarria da Euskararen Foru Legearen 5.2 artikuluan esaten dena: *“aurreko atalean zehaztutakoa berrikus daiteke”*.

Iñaki Azkona: Ni irakaskuntzaren mundutik oso aparte nago, baina beti harritu nau euskalgintzatik A ereduari ematen diogun tratamenduak, eta gaur ez da aipatu ere egin. Euskalgintzarako, A eredia mamu bat bezalakoa izan da: ez du euskalduntzen, eta beraz baztertu egingo dugu, ez dugu hitz egin ere egingo eredu horretaz. Eta egia da Nafarroaren kasuan Legearen aldetik eremu oso bateko eskoletan A eredia bakarrik egin daitekeela, baina guk baztertu egin dugu.

A eredia daukaten eskoletan irakasle gazteak daude, eskolatik atera berriak, lehenengo lana hor dutenak, eta ez dute gogorik hor segitzeko, ez direlako ongi sentitzen Administrazioarekin, eta ez direlako euskal munduan sentitzen, lotsagarritzat jotzen delako A ereduko irakaslea izatea. Ni horrek asko

harritzen nau, eta uste dut euskalgintzaren mundutik gai hori beste modu batez planteatu behar dugula, A eredia ongi hornitzeko, metodologia ona erabiltzeko, irakasle onak izateko, baloratuak senti daitezten...

Eremu ez-euskalduneko herri askotan, ikastetxe publikoetan, ikasleen gurasoen gehiengo handi batek A eredia aukeratu du. Bat baino gehiago harrituko litzateke, adibidez -eta ezagutu dudalako aipatzen dut- San Adrian bezalako herri bateko datuekin. Seguru aski mota honetako datuek asko larritu dute Gobernuak, eta bere jarrera ulertzeko gako bat egon daiteke hor.

Baina gu geure horretan, “ez duela euskalduntzen eta ez duela euskalduntzen”, eta ezta kasurik txikiena ere. Gezurra dirudi ze itsu gauden, ze zailtasun daukagun kontsignetatik harantz egiteko eta dauzkagun aukera urriei probetxua ateratzeko.

José Luis Mendoza: Hurrengo urteei begira, nik uste dut Legea aldatzeko nolako oztopoak dauzkagun ikusi behar dugula. Gaur egun pentsaezina da Vasconcearen Legea aldatzea. Elebitasunaren aldeko mobilizazioak antzua izanen dira: ez dute etekinik lortuko eta hiritarrengan desmobilizazio eta kezka besterik ez dituzte sortuko. Posibilismoari begira, 1995eko PSOE eta EAren arteko akordioa mugatzat koka daiteke: eremu ez-euskalduna desagertzea eta misto bihurtzea.

Eremu ez-euskaldunetik mistora igarotzeko eskakizun bakarra Irunberriko kasua izan da. Burguete (CDNkoa) izan zen Parlamentuan eskaria egin zuena, garai hartan alkate zela, eta nahiko ondo planteatu eta argudiatu zuen, kontuan hartuz zein zen eskola eta ikastolen egoera eta herriaren desioa, baina PSOEek ez zuen onartu. Nire ustez, estrategia aldetik hobe zen Lege osoa aldatzea eta Nafarroa osoa eremu euskaldun eta misto bihurtzea, baina, besterik ezean, herriz herri egin beharko da.

Gure estrategiari dagokionez, oso interesgarria izango litzateke PSOEkoekin hitz egitea. Unibertsitateari dagokionez, esan ziguten ez zutela UPNkoekin adosteko asmorik, eta lerro tartean irakurri genuena izan zen hor badagoela gatazka bat unibertsitateko UGT eta PSOEren artean.

Eduardo Aldasoro: Nire ustez, ikastetxeei aukera eman behar zaie hizkuntza ereduetan malguak izateko. Jakina oraingo ereduak mantendu behar direla, baina, D eredian

adibidez, murgiltze etapan bermatu behar dute gutxienez %75 izango dela euskaraz, eta besteetan %65. Baina geratzen diren %25 eta %35 horietan ikastetxeek erabaki beharko lukete zer eman ingelesari eta zer eman gaztelaniari, bakoitzaren egoera soziolinguistikoaren arabera, ez baita gauza bera Arantzan, Burlatan, Leitzan edo Altsasun egotea.

Badakit hizkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko bereizketa artifiziala dela, baina Filosofiako irakasle bat ezin da arduratu ikasleen artean egiten den lagunarteko hizkeraz. Horretarako programa bereziak behar dira, eskola barruan eta eskolatik kanpo, haurrek euskara erabiltzeko aukerak izan ditzaten.

Nafarroako egoera soziolinguistikoa ikusiaz, ni A ereduaren alde nago, argi eta garbi. Eta Euskara Zerbitzutik bultzatu genuen eremu mistoan eta ez-euskaldunean A eredia jartzea. Herriz herri ibili ginen jendea horretan sartzeko konbentzitzen. Baina egia da oso arazo bereziak sortzen direla eredu horretan: irakasleak ez dira batere egonkorak, ehunka ikastaro ematen dizkiegu metodologian, teknikan... eta irakasleak urtero berritzen dituzte eta urtero hasi behar da zerotik. Hor desgaste handia sortzen da.

Baina egia da euskalgintzatik oso gaizki baloratu dugula A eredia. Ez da ulertu zertarako balio zuen. Kontziente izan behar dugu zenbait tokitan lehenengo belaunaldietan ez direla zuzenean joango euskara ikastera. D eredia aukeratzen denean, motibazio integratzailea dago gehienbat, jendea kontziente da komunitate bateko partaidea dela, euskara bere hizkuntza dela, eta euskara ikasi nahi da komunitate horretako partaide sentitzeko. A ereduan, berriz, gurasoek bestelako motibazioak dituzte, instrumentalagoa da (badaezpada, agian gero lan bat aurkitzeko balioko du, ez dago gaizki euskara ikastea ere...). Motibazioak diferenteak dira, eta helburuak ere bai.

Rikardo Ederra: A ereduaren garapena oso konplexua izan da. Eremu ez-euskaldunean denok egon gara hori bultzatzearekin ados, aukera bakarra da, eta guk positibotzat hartzen dugu azken bost urte hauetan nolako garapen handia izan den ikusiz.

Ez dugu hain garbi A ereduaren garapena Iruñerrian, askotan -ez beti- D eredia frenatzeko modu bat bezala erabili delako, eta kasu horietan horren kontra egon gara. Barañainen, adibidez, hori lortzeko joera bat egon zen.

Pribatuan, profesionaletan, argi dago gurasoek eskatzen duten euskara erabiltzen

dela. Guraso batzuek galdetzen dute ea zergatik ez den euskara ematen, eta horren aurrean alternatiba A eredia jartzea da. Gainera, eskola konfesional askotan eta eskola publiko askotan gertatzen ari da A eredukoak direla esan, eta gero optatiba gisa estraeskolat moduan eskaintzea, eta hori kaltegarria da.